

**2014KO IRAILA
1. ZENBAKIA**

PLAZARAT

EMAKUMEZKO ARTISTAK ARDATZ

ZINEMA

**“Etsipenak
pasibotasunera
garamatza”**

**HELENA
TABERNA**

MUSIKA

**Dena dago abesteko,
dena dago jotzeko**

**Aldarrikapenez
beteriko
doinuak**

BERTSOLARITZA


Askatasuna darío mugimenduari

Apoliniarra eta dionisiakoa. Jatorri bera duten baina kontraerriak diren bi kontzeptu dira; Apolo eta Dioniso jainko greziarrei zor diete esanahia terminoek. Oreak liraina eta sosegua adierazten du lehenak; bulkadak eta sena bigarrenak. Hurrenez hurren, dantza klasikoa eta garaikidea definitzeko erabili ohi izan dira.

XIX.mendearen koka daiteke dantza garaikidearen sorrera; forma klasikoaren erantzun edo erreakzio gisa sortu zen, gorputzek askatasunez adierazteko sentitu zuten beharretik. Dantza klasikoaren erritmo, pauso eta teknika irmoetatik haratago joan nahian, emozioak adierazteko bide gisa ulertzen hasi ziren espazioa. Teknika klasikoetik urrunduz joan ahala, dantza estilo desberdinetako mugimenduak hartzen joan zen; flamenkoa, dantza tribalak edota akrobaziak izan zituen inspirazio. Mendeetan zehar aldaketa ugari jasan dituen arren, askatasuna tinko mantendu izan da.

Asko dira askatasun hori aurkitu nahian dantza klasikoetik garaikidera iragan direnak. Matxalen Bilbao zuzendari, koreografo eta interpretatzaile bermeotarra da horietako bat. Berandu harremandu zen dantzarekin; hamazazpi urterekin ekin zion ballet klasiko dantzareari. Bertako kode hertsia eta zurrunetatik ihesi dantza garaikidearekin egin zuen "topo". Gehiegi pentsatu gabe hartutako erabakia izan zela onartzen du, "instintiboki" egingakoa. Hitzekoa ez den adierazpen gisa ulertzen du dantza Matxalen Bilbao, gorputzaren bitartez egiten den komunikaziotzat jotzen du: "Sofistikazioa alde batera utziz, kontzientziari eutsi behar dio gorputzak; espazioaren, erritmoaren, norberaren gaitasunen kontzientzia. Ideiak eta kontzeptuak transmititzen ditu dantzak".

Dantza garaikideak ardatz eta eragile duen askatasunak eragin handia izan zuen emakumearen burujabetzan; izan ere, hedatu ahala arau eta kateak apurtuz joan zen. Dantza klasikoan gizona arduratzen da emakumea bizkarreratzeaz; dantza garaikidean, aldiz, emakumezko zein gizona burutzen dute bizkarreratzea. Garrantzirik gabeko ekintza dirudien arren, gizartearen barneratutako zenbait roletan talka egin eta bi sexuak pare pare jartzen ditu. Hala ere, Matxalen Bilbao onartzen du parekidetasunaren konkistan bide luzea




Matxalen Bilbao 'sast!' izeneko lanean.
ARGAZKIA: Matxalen Bilbao

dagoela egiteko: "Gizonezkoek erraztasun gehiago dituzte koreografo izateko emakumezkoek baino; beraien lanek arrakasta gehiago izan ohi dute. Emakumeok gure artean borrokatzeko beharra ikusten dugu paper bat eskuratzeko. Baina bikaina izan gabe ona den gizona bat agertzen denean, konpainia guztiak izan ohi ditu atzetik".

Aintzane Revuelta dantzari mexikarrak bost urte daramatza Donostian, bere jaioterrian. Matxalen Bilbao egin bezalaxe, ballet dantzatzaren hasi zen. Urte luzez gimnasia artistikoa egin ostean, egun dantza garaikidea du ogibide. Dantza munduarekin komunikatzeko lengoia duen heinean, gizarte rolet bere adierazpena mugatzen dutela onartzen du: "Emakumeon gorputza erotismoarekin lotu izan da beti. Nire lanetan gorputza erakutsi eta askatasunez dantzatu nahiko nukeen arren, mugatua sentitzen naiz askotan, sexuala eta erotikoa denarekin lotzen binaute". Gizonezkoengan ere gizarte rolet "izugarriko eragina" dutela jakinarazi du dantzari mexikarrak; tristuraz adierazi baitu dantza egitea gustuko duen mutila homosexualtzat jo izan dela beti.

Dantzarien prestaketa

Dantza garaikidean teknikak berebiziko garrantzia duen arren, badira dantzari batek eduki beharreko beste zenbait ezaugarri. "Teknika, malgutasuna, yogaren ezagutza edota gorputza fintzen laguntzen duen beste edozein ariketa eta teknika menperatu behar ditu dantzariak. Nik bi ordutako klaseak ematen ditut eta denbora hori atal ezberdinetan banatzen dut. Sortze- eta ikertze-prozesuetan tresna ezberdinak erabiltzeko gaitasuna eskuratzeko da helburua", jakinarazi du Matxalen Bilbao. Ikasketa prozesuaren gako gorputza hezitzea dela onartu du dantzari bermeotarrak: "Egunero-egunero aldaketa txikiak nabaritu behar dira; dantzariak ez dituzte berehalako aldaketak pairatzen. Pertsona guztiok barruan dugun haurra bilatu behar dugu,



Munduarekin komunikatzea ahalbidetzen dio dantza garaikideak Aintzane Revuelta mexikarrari. ARGAZKIA: ZukZeuk

norberak bere baitan duen mugimendu naturalaren kutsu organikoa. Dantzan sakontzen zoazen heinean, barruan daramazuna sofistikatuago egiten joan behar zara”.

Aintzane Revueltaren aburuz “gorputzaren kontzientzia” da ikaste prozesuaren gakoa: “Dantzariaren lan tresna gorputza da; haren eta buruaren arteko oreka aurkitu behar du. Pixkanaka-pixkanaka bere gorputza ezagutzuz eta kontrolatuz doa dantzaria. Oso prozesu polita da. Buruan barneratuta duzun teoria praktikan jartzen duzu gorputzaren bitartez. Gorputzarekin batera haziz doa dantzaria”. Gorputzarekin adierazteko gaitasunak protagonismo guztia bereganatzen duela adierazi du dantzari mexikarrak: “Dantza garaikidea organikoa da eta gorputzaren forma naturalak jarraitzen ditu. Teknikoki maila bikaina eskuratzea baino garrantzitsuagoa da mugimenduaren bitartez transmititu eta publikoaren-engan erreakzioa eragiten jakitea”.

Dantza garaikidea Euskal Herrian

Bilboko Muelle 3 dantza eta dramaturgia garaikideen sorkuntza eta ikerkuntzaren espazioan, Bilbao Antzerkia Dantza Jaialdian, Donostiako Arte Eszenikoen Ferian edota La Fundición Aretoan aurki daitezke Euskal Herri mailan dantza garaikidearen alorrean egindako lanak. Matxalen Bilbaok deritzo herrialdean egiten diren lanak egon badaudela, baina nekez iristen direla publikoarengana, testuingurua oso zaila baita: “Biztanleriaren zati oso txiki bat gara. Hala ere, lan duintasunari eta benetako bizitako arteak duen presentziari dagokionean aurrerapenak egin dira. Dantzarien elkarteak sortu dira gure eskubi-deak babestu, eta instituzio eta antzerkien aurrean existitzen garela aldarrikatzeko”.

Aintzane Revueltak ere uste du egoera hobera doala; hala ere, gauza gehiago egin daitezke-

lakoan dago. Are gehiago, dantza garaikideari eman zaion bultzadak norabidez aldatu beharko lukeela uste du: “Dantzaren alde egiten diren gauza asko merkantilizazioari eta kapitalizazioari begira egiten direla uste dut. Artista gazteen, dantzari independenteen eta konpainia txikien lana sustatu beharko litzateke”.

Dantza garaikideak Euskal Herrian bizi duen egoera ikusita, atzerrira joaten dira artista asko, gure mugetatik at aukera gehiago izateko itxaropenarekin. Hala ere, badaude bertakoan sinesten jarraitzen dutenak ere; Matxalen Bilbaok azken horietako bat da. Atzerrira joateak dantzari gisa garatzen laguntzen duen arren,

“Atzerrira joan eta beste giro batzuk ezagutzeko gomendioa egiten dut. Era berean, hemen gelditzeko gonbita ere egiten dut, denak joaten bagara ezingo baitugu Euskal Herriko dantzarien egoera hobetzearen alde borrokatu”

Matxalen Bilbao



“Pentsamenduaren benetako askatasunerako bide bakarra da artea. Hezkuntza integrala sustatu beharko litzateke sortzaileak eta trebeak izango diren pertsonak sortzeko helburuarekin”

Aintzane Revuelta

bermeotarrak Euskal Herrian geratu eta hementzat borrokatzeko hautua egin zuen: “Beste herrialde batzuetan aukera gehiago daudenez, atzerrira joan eta beste giro batzuk ezagutzeko gomendioa egiten diet ikasleei. Bestalde, hemen geratzeko gonbidapena lutzaten diot jendeari; izan ere, denak joaten bagara ezingo dugu Euskal Herriko dantzarien egoera hobetzearen alde borrokatu”.

Euskal talentuen ihesaldia ekidin eta kalitatezko formazioa eskaintzeko helburuarekin 2015eko irailean Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola irekitzea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak. Euskal Herri mailako artisten artean poza zein kezka sortu du albisteak, gobernuak ez baititu oraindik proiektuaren nondik norakoak argitara eman.

Artea hezkuntzaren baitan

Artearekin loturiko gai eta kontzeptuek hezkuntzan duten presentzia murrizta da. Txiki-txikitatik matematika, gizarte, natura, soinketa... ikasten dituzte haurrek, guztiak bere zentzurik hertsian. Bi eta bi lau direla buruz ikasi eta jendaurrean esaten ikasten dute, horren zergatia eta norberari nola eragiten dion aztertzea albo batera utziz. “Pentsamenduaren benetako askatasunerako bide bakarra da artea. Hezkuntza integrala sustatu beharko litzateke, sistema horren baitan artearen erabilera bultzatuz; ez artistak sortzeko helburuarekin, sortzaileak eta trebeak izango diren pertsonak sortzeko xedearekin baizik”, aldarrikatu du Aintzane Revueltak.

Artisten lan baldintzak hobetu, heziketa profesionala sustatu, diru-laguntzak eskaini eta arteak hezkuntzan duen presentzia ere handitu behar da. Oraindik bide luzea dago egiteko; dantza garaikideak plazak, eszenatokiak edota eskolak ditu konkistatzeko. Pausoz pauso, erritmoa galdu gabe.

helen
taberna

“Emakumezkoek egindako oso lan gutxi daude eta hori gure gizarteko defizit demokratikoaren ondorio zuzena da”

Lanak derrigortuta han-hemenka aritzen da Helena Taberna altsasuarra. Gaur Madrilen, bihar Iruñean, etzi... auskalo. Guztia ematen du bere ekoizpenetan eta bosgarren pelikula prestatzen ari den honetan, ez du amore emango, oihua daraman isiltasuna da zuzendari eta ekoizle nafarrarena. Hogeita zortzi urte daramatza lanean, eta ez alferrik: ekoiztetxe bat sortu, lau film luze egin eta emakume zuzendariak batzen dituen elkarte bat eratzeko aukera izan du. Begirada du obsesio eta lan-tresna, eta zinemak gizartean eragin dezakeen eraldaketa amets.

80.hamarkadaren amaieran Nafarroako Gobernuo Teknologia Berrien Koordinatzaile izendatu zintuzten arren, 1994. urteaz geroztik zinema duzu ogibide. Zuzendari eta gidolari aritu zara bost film eta zazpi film laburretan. Nola baloratzen duzu zure ibilbidea?

Amets bat bete dut. Zinema zuzendari izatea ez nuen aurreikusia; umea nintzelarik amestu ere ezin nezakeen egin. Emakume izanik, muga argi bat nuen: emakume zuzendarien eredu oso gutxi nituen. Iruñean antolatzen den *Zinemaren eta Emakumeen Nazioarteko Erakustaldian* ikusi nituen gehien markatu nauten pelikulak eta ez dut uste kasualitatea izan zenik. Besteak beste, Margarethe von Trotteren eta Agnieszka Hollanden lanak ikusteko aukera izan nuen; zoragarriak izateaz gain, emakumeek zuzendutako filmak ziren. Ikaragarri-zko pizgarria izan zen niretzat. Denboraren poderioz amets bat izan eta hura betetzeak erabat asetu nau.

Zure obretan landutako gaiak inoiz baino gaurkotasun gehiago dute egun. 2003an *Extranjeras* zuzendu zenuen, Madrilen bizi diren emakume immigranteak protagonista dituen filma. Komunikabideek zein gizarteak kopuru huts bilakatzen dituzten istorioei aurpegia jarri eta humanizatu egin zenituen.

Pertsonen begiradari erreparatzen diot. *Yoyes* (1999) egin ostean Madrileren joan nintzen bizitzera eta egunero elkartzen nintzen emakume immigranteekin. Film hori egin izanagatik ausarta nintzela esaten zidaten askok eta nik pentsatzen nuen: *Emakume horiek dute benetako ausardia, beste herrialde eta kultura batetik etorri eta hutsetik abiatu baitira.*

Zinemaren funtzio nagusienetarikoa bat ikuslea astintzea da. Pelikula honetan botila erdi beterik azaltzen da; emakume immigranteek protagonismoa bereganatu eta gizarteari eskaintzen diotena ikus daiteke. Nire ustez, ikuspuntu hori ematean asmatu zuen *Extranjeras* (2003) filmak, immigranteek gizarteari kentzen

diotena ikustera eta entzutera ohituta baikaude. Dena den, aspaldi ez dut pelikula ikusi eta gaur egun immigrazioaren gaia dagoen moduan egonda, Ceutan eta Melillan, Maroko eta Espainiaren arteko mugetan, dauden hesietan azken hilabetetan bizitakoa, esaterako, berriz ikustea komenigarria litzateke.

***La buena nueva* (2008) filmean erlijioaz eta gerraz hitz egiten duzu, Elizak herritarrekin izan duen harremana ardatz hartuta. Omenaldia edo salaketa du helburu obrak?**

Biak ageri dira pelikulan, baina lana egiterako orduan ez nituen ardatz izan. Istorio on bat kontatzea nuen xede, bostere handia duen eta oso ederra den istorio bat kontatu eta jendea ezagutaraztea. Memoria ariketa betetzen du automatikoki; izan ere, jendeak ezagutzen badu, inork ezin du esan gertatu ez zenik.

Altsasuko emakumeak omendu nituen pelikulan. Hamasei urterekin jakin nuen Marino Ayerraren berri liburu baten bitartez. Asko hunkitu ninduen eta pertsona zein zinemagile moduan hezi ninduen. Hortaz, nola ez da ba nabaria izango garai beldurgarri horren aitorpena? Are gehiago inork barkamenik eskatu ez duen honetan... Ikaragarria iruditzen zait. Liam Neeson Semincin egon zen *La buena nueva* (2008) aurkeztu genuenean eta nire filma adiskidetzaila dela esan zidan; Espainiako Gerra Zibilean egindakoagatik Elizak barkamena eskatzeko aukera paregabea zuela uste zuen. Nik gertaerak kontatzen ditut eta herriari, horrenbeste sufritu zuenari, barkamena eskatzeko atea zabalik uzten dut, mina baztertu eta aurrera jarrai dezan.



Lucia Etxeberriaren obra batean oinarritutako film luze bat grabatzen hasiko da urrian Taberna. ARGAZKIA: Lamia Producciones

Oraindik ere iskanbila sortzen du hilobiak zabaltu eta familiek beraien senideen gorputz-hondarra bereskuratzeko eskaerak. Ezin dut ulertu, hain da funtsezkoa...

Zure lan askok oinarri soziala dute eta protagonista ugari emakumezkoak dira... Zer adierazi nahi duzu zure lanen bitartez?

Ikustea gustatuko litzaizkidakeen pelikulak egiten ditut. Pertsona guztiak dute ideologia, eta istorio guztiak dute oinarri bat, ez dira kasualitatez gertatzen. Ez da berdina protagonista emakumezkoa edo gizonezkoa izatea, edota klase sozial batekoa edo bestekoa izatea, ez eta une historiko batean edo bestean kokatzea ere. Istorio bakoitzaren azpitik doana oso aberasgarria da eta garrantzitsua da horri erreparatzea; izan ere, istorioari testuingurua erantsi eta ikusleak izan dezakeen jakin-mina ase dezake.

Zinemagilea izanik, islatu nahi dudun garaiaren eta bertako pertsonaien inguruko argibideak biltzera behartuta nago. Pertsonaia bakoitzak ahots jakin bat izan ohi du; Londresko aristokrata baten eta Jaengo langile baten ahotsen artean alde handia dago. Ez nago prest aberastasun hori galtzeko. Beraz, istorioetako pertsonaia elementu sozialez eta generoek inguratzen ditut.

Istorio on bat kontatzea eta zinematografikoki ondo egitea da niretzat garrantzitsuena. Era berean, haratago joatea gustatzen zait, pertsonaia nabardura eta elementuez osatuz eta ikusleari istorioan gehiago sakontzeko aukera eskainiz.

Zinema aldarrikapen edo salaketarako tresna eraginkorra dela esango zenuke?

Denerako balio du. Borrokarako, ardugabeke-riarako, lasaitasunerako edota lokartzeko tresna indartsuak dira ikus-entzunezkoak. Ez da beharrezkoa aditu izatea zinemak hunkitzeko duen gaitasuna ezagutzeko. Ikusleari jarraibideak eskaini eta amesten jarraitzeko estimulatu duen zinemaren existentzia oso interesgarria iruditzen zait. Istorio bat eraikiz eta mundu hobe batean sinetsiz amesten ari banaiz, nola konformatuko naiz ikusleek hori bera sentitzen ez badute? Zinema aretoetatik atera eta beraien bizitzan inguruan hausnartu eta mundu hobe bat lor daitekeela sinesteko dudun aukera bera izan beharko lukete ikusleek.

ETAko buru izan zen lehen emakumez (Yoyes, 2000), immigrazioaz (Extranjeras, 2003) edota Nagore Laffageren hilketaz (Nagore, 2010) hitz egin duzu zure lanetan. Zein irizpide erabiltzen duzu filmetan landuko dituzun gaiak aukeratzeko?

Intuizioz jokatzan dut hasiera-hasieratik. Lehen film laburra *-La mujer de Lot* (1990)-, egin nuenetik senak eta zineman ikustea gustatuko litzaizkidakeen istorioek gidatu dute nire jarduna. Ikusle gisa atsegin dudanaren inguruan ondorengo pentsatu izan dut: *izugarri gustatuko litzaidake horrelako zerbait ikustea...* eta bestaldera igaro naiz. Sakondu egin dut, noski, lehenik eta behin intuizioa datorren arren, ideia horretan sakondu beharra dago eta. Ondoren aukeratutako istorioa zinemaren bitartez landu daitekeen aztertu behar da, besteak beste.

Zinema kritikariek diote zure lanetan, baita gogorrenetan ere, beti ageri dela esperantza.

Gustuko dut kritikariek hori esatea. Kontatzen ditugun egoera askotan bizitzea oso zaila dela uste dut, asko oso gogorrak baitira. Baina etsipenak pasibotasunera garamatzala pentsatzen dut. Eta hori ez dut gustuko, botereak irabazten baitu gizarte berdintsuago, ederrago eta poetikoago baten kaltetan. Era berean, dramatikoa eta monetarioa den gizarte gailentzen da. Hala ere, ez diot buelta gehiegi ematen horri, nigandik ateratzen da, munduan egoteko dudun modutik. Zuzendariaren izaerak baldintzatzen du bere lana. Emakume aktibista izatearekin eta botila erdi bete ikusteko dudun ohiturarekin lotua egon daiteke nire lanetan ageri den esperantza kutsu hori.

Emakumezkoak protagonista eta zuzendari dituzten filmak beharrezkoak direla uste al duzu?

Begien bistakoa da. Biztanleriaren erdiak kontatutako mundua ez ikustea onartezina da. Zalantzan ere ezin da jarri. Emakumeek egindako lan oso gutxi daude eta hori gure gizartean nabari den defizit demokratikoaren ondorio zuzena da. Estatu mailako zinematografian kalitate handiko pertsonak dauden arren, zaila da gutxiengo batetik jenoak ateratzea. Espainian egiten diren 100 pelikuletatik 90 gizonezkoek zuzendutakoak dira; oso begirada txikia da emakumeena. Zinemak eraldatzeko duen gaitasun handia kontuan hartuta, diskurtsoetan begiradaren zati garrantzitsu bat galtzen ari gara.

'Zergatik ageri dira pertsonaia femeninoak zure filmetan?'. Gizonezko zuzendari inoiz egiten ez zaien galdera da; emakumezkoek, berriz, bai. Eta hori gizonezkoek zuzendutako lanetan pertsonaia %99 gizonezkoak direla...

"Ikustea gustatuko litzaizkidakeen pelikulak egiten ditut. Pertsona guztiak dute ideologia, eta istorio guztiak dute oinarri bat, ez dira kasualitatez gertatzen"

•••••

"Zuzendariaren izaerak baldintzatzen du bere lana. Emakume aktibista izatearekin eta botila erdi bete ikusteko dudun ohiturarekin lotua egon daiteke nire lanetan ageri den esperantza kutsu hori"

•••••

"Oraindik ere iskanbila sortzen du hilobiak zabaldu eta familiek beraien senideen gorputz-hondarra bereskuratzeko eskaerak. Ezin dut ulertu, hain da funtsezkoa..."

Ikus-entzunezko Baliabideetako eta Zinemako Emakumezkoen Elkarteko (CIMA) sortzailetako bat zara.

Emakumezkoek beti falta izan zaiguna batzea izan da. Hau da, historikoki eremu pribatuan aritu izan garenez, ez ditugu gizonezkoen aukera berdinak eduki asoziazionismoari, elkartasunari eta babesari dagokionez. Orain zabaldu zaizkigu bide horiek emakumeoi.

Emakume zuzendarien inguruko liburu baten aurkezpenean elkartu ginen, hitz egiten hasi eta proiektua martxan jarri genuen. Zoragarria da! Zinemagile gazteak guk bizitakotik pasatu behar ez izatea da ilusio gehien egiten ziguna; edo niri, behintzat, bai. Belaunaldi gazteei laguntza eskaintzeaz gain, berdintasunari dagokionez, ikus-entzunezko alorrarekiko erakundeen sentibilizazioa handitzea ere dugu erronka.

Nire ustez CIMAREN lorpenak handiak izan dira eta une honetan irudi sendo eta errespetatua dauka industriaren zein gizartearen baitan.

Zer eman dizu horrelako proiektu baten parte izateak?

Amets bat erdiesteko eta elkar hobeto ezagutzeko aukera. Hasiera batean ez genekien elkarte bat edo lagun-talde bat izango zen. Gutako zenbait elkartu, eta elkar babesteko eta gure proiektuen inguruan hitz egiteko abagunea eskaintzen zigun. Gaur egun 300 kide ditu CIMAK eta ikus-entzunezko arlo guztietan jarduten duten emakumeendako informazio hedapen eta iturri garrantzitsu bilakatu da. Bidegabekeriaren bat pairatuz gero, hura irmotasunez eta diskurtso indartsu batekin defendatzeko plataforma bat egotea oso positiboa da. Pozez zoraturik nago horrelako proiektu baten sustatzailetako bat izanagatik, ilusio eta lan asko jarri baititugu bertan.

Ekoi-tetxe bateko buru ere bazara. 2003. urtean Lamia Producciones sortu zenuen.

Zailtasun ugari izango nituela ohartu nintzen nahiko goiz eta ekoi-tetxe bat sortzea erabaki nuen. Martiritatu gabe esaten dut emakume izateak eragingo litzaizkidakeen zailtasunez jabetu nintzela; izan ere, espainiar zinema oso maskulinoa da. Errazagoa da gizonezko ekoi-tze eta zuzendariak bilera edota taberna batean elkartzea, gehiengoa baitira. Beraz, baztertzea helburu izan gabe, ohikoa da 'Proiektu bat daukat. Egin nahi al duzu?' bezalako hizketaldiak beraien artean ematea.

Horrez gain, ni 2000. urtean hasi nintzen zinema egiten eta garai horretarako amaitutzat eman zen mezenasgoa. Ordura arte lankide batzuek ekoi-tzeen babesa izan zuten, Alex de la Iglesia edota Julio Medemek, esaterako. Nik ez nuen horrelakorik bizi; hortaz, gustuko nituen pelikulak egin eta mendekotasunik ez edukitzeko ekoi-tetxe bat sortzea erabaki nuen. Ekoi-tze baten zerbitzura lan egiten baduzu, hark kontatzen dituzun istorioetan eta haiek kontatzeko moduan eragina izan dezakeela jakina da. Bidesari bat ordaindu dut pelikulak egiteko eta hori soilik idaztea edo zuzentzea baino zailagoa da. Baina egiari zor, oso pozik nago, nik erabakitako bidea jarraitzen ari banaiz.

Emakumezkoen matxinada fa klabean idazten da

Eremu publikoa konkistatzen doazen heinean, ugarituz doaz eszenatokira igo, oztopoez ahaztu eta musika egiten duten emakumezkoak

Deskantsurik gabeko borroka izan da emakumezkoak historian zehar garatutakoa. Ez du beste aukerarik izan, gizarteko eta kulturako elementu guztiek gertu-gertutik mehatxatu dute eskubide eta espazioen lorpenean. Iraupen-lasterketa bateko protagonismoa bereganatu behar izan du emakumezkoak halaberharrez eta belaunaldiz belaunaldi egindako garaipenen transmisioak ez du etenik izan. Borroka horrek fruituak eman ditu. Mendeetan barna aukera berdintasunaren alde guztia eman dutenen lana alferrikakoa izan ez dela ikus daiteke gaur egun. Emakumezkoek plazak, oholtzak, kaleak... konkistatu dituzte. Ez da lan samurra izan eta iraupen-lasterketak ez du helmuga zeharkatu. Oraindik asko dago egiteko; emakumezkoak eremu publikoan duen presentzia handitu bada ere, paper mugatua betetzen du oraindik. Kultura da horren adierazle.

Musikan, esaterako, historiak bortxaz kendu dio protagonismoa emakumezkoari. Beste edozein kultur arlorekin baino lotura handiago du emakumezkoak musikarekin. Izan ere, terminoak berak jatorri femeninoa dauka. *Mousiké* hitz grekotik dator, Jupiter jainkoaren bederatzia alabei egiten die erreferentzia, Musen abesbatza osatzen baitzuten. Sorlekutik urrundu ahala, rol eta konbentzio sozialek bigarren mailara zokoratu dute emakumezkoa musikan.

Egon badaude musikaren arloko estereotipo eta sexu rolei aurre egin dietenak, hamarkadaz hamarkada musika armatzat izanik emakumezkoen eskubideen alde borrokatu direnak. Aretha Franklinek, Joni Mitchellek, Patti Smith-ek edota Riot Grrrl mugimenduak ondorengo belaunaldien bidea erein zuten eta gizarteko arlo guztietan erdietsitako lorpenei zentzua ematen dieten abestiak utzi zituzten.

Beraien ondareari jarraipena eman dioten artistak dauden arren, ez da joera nagusia. Mutilez osaturiko taldeak ikustera ohituta gaude eta, orokorrean, emakumezkoek ahotsa jartzen diete gizonezkoek sortutako proiektuei. Oso gutxi dira emakumezko bateriak-jotzaileak, edota gitarristak. Eta zer esan emakumezkoen soilik osaturiko taldeez? Nekez izendatu ahaliko genuke zerrenda duin bat. Emakumezko

musikariaren kopurua txikia ez izanda ere, oso urria da haien ikusgarritasuna. Egoera hori eragin duen faktoreaz baino, faktoreez hitz egin beharko litzateke, ugariak baitira emakumezkoek musikan duten presentzia mugatu duten arrazoiak.

Itsaso Gutierrez eskarmentu handiko musikaria da. Jauko Barik, Keike eta Xarma taldeetatik igaro ostean, egun On taldeko ahotsa eta gitarrista da. Emozioak adierazteko bide gisa ikusten du musika eta, zentzu horretan, emakumezko zein gizonezkoen mundua dela aldarrikatzen du. Hala ere, onartzen du gizonezkoek erraz kudeatzen duten eremua dela. Musika taldeetan zein inguruan sortzen diren lan-taldeetako (managerrak, soinu eta argi teknikariak, ikusleak) gehienak gizonezkoak direnez, erosoago sentitzen direla uste du. Jendarte sexista batean bizitzearen ondorio zuzentzat jotzen du gaur egungo egoera: "Inertziaz jarrera eta rol matxista ugari ditugu eta lekua egitea asko kostatzen da. Emakumezkoak egon badauden arren, eremu askotan bezalaxe, maiz, ez dugu gure lanaren onspena jasotzen".

Musikan profesionalki aritzen diren emaku-

mezkoren kopurua gizonezkoena baino txikiago izatearen arrazoi nagusia erreferente faltan aurkitzen du Itsaso Gutierrezek: "Genero berekoak izaten dira gehienetan geure eredu eta, oharkabean, guk geuk eraikitzen ditugu gure muga eta harresiak. Salbuespenak salbuespen, emakumezko gehienok eginda dauden eskemak errepikatzen jotzen dugu".

Mursego bilakatzen da Maite Arroitauregi oholtza gainera igotzean; hamaika instrumenturekin egindako artearen sinonimoa da bere izen artistikoa. Ahotsa, biolontxelo, pianoa, ukelelea, xilofonoa... ez dio ezeri muzin egiten. Musikari eibartarrak publiko eta pribatuaren arteko binomioari erreparatzen dio emakumezkoen presentzia murrizta azaltzeko: "Emakumezkoek beti bete izan dute arlo pribatuari dagokion lekua. Musika arlo publikoan dago, beraz, emakumezkoak edozein kritika jasotzeko prest egon behar du eta gutxietsia izango da. Bestalde, musika tresna bat jotzeak kontrola edo indarra ematen dio jotzaileari. Teknika eta gaitasun mentala dauzkazula adierazi nahi du. Tradizioak ezagutzea horiek maskulinitatearekin erlazionatzen ditu".



Gaztea Maketa Lehiaketako finalera iritsi zen Ilargi Agirre Perlak taldearekin.
ARGAZKIA: Dena Flows

Maite Arroitauregiarekin bat dator Maialen Madariaga. Bost emakumezko osaturiko Ain1 taldeko kide da eta dagoeneko zazpi edo zortzi urte pasa dira profesionalki musika egiten hasi zirenetik. “Musikan ere gizarteko beste arlo askotan gertatu den fenomeno berdina gauzatu dela iruditzen zait. Publikoki azaltzearena gizonen kontua izan da urte luzez eta emakumezkoek leku hori hartzea gaizki ikusi izan da”, azaldu du bergararrak. Era horretan, emakumezko musikari asko gainontze-koek esaten dutenaren preso bizi direla uste du, ez baitira “emakumezkoena ez den itxura” horrekin oholtzara iritertea ausartzen. Emakumezko landu beharreko zerbait dela aldarrikatzen du.

Ilargi Agirre zarautzarrak kazetari eta bateria-jotzaile lanak uztartzen ditu. Steepers eta Sugar Rave taldeetatik igaro ostean, Screaming George & The Hustler eta Perlak taldeetan jotzen du egun. Azken horrekin Gazteak antolatutako Maketa Lehiaketako finalera iritsi zen. Musika edozeinek egin dezakeela aldarrikatzen duen arren, lehiaketa horrek erakutsi zion errealitatea oso bestelakoa dela: “Gazte Maketa Lehiaketako finalera bost talde iritsi ginen eta horietatik gu ginen neska bakarrak: 25 musikarietatik hiru neska bakarrik. Ez gara ezta laurdenera iristen. Hori bizi dugun egoeraren adierazle argia da. Geroz eta gehiago garen arren, oraindik gutxi gara”. Musika gizartearen egoera orokorraren isla dela deritzo Ilargi Agirrek. Musikari zarautzarraren ustez, historikoki emakumezkoak azpian egon direnez, urte askotako atzerapena dute zentzu askotan eta egoera horri buelta emateko urte asko beharko dira.

Alderaketak alderaketa

Komunikabideek eta musika arloan aritzen diren profesionalak ere badute zer landu. Ohikoa izaten da emakumezko musikariak elkarren artean alderatzea, musika estiloak berdinak ez badira ere. Ondorioz, badirudi emakumezkoen eta gizonen lanak konpa-

“Musika kritikak idazten dituztenak gizonen kontua izan ohi dira eta emakumezkoen musika baloratzerakoan paternalismora jotzen dute askok”

Maite Arroitauregi
Mursego

“Publikoki azaltzearena gizonen kontua izan da urte askotan zehar eta emakumezkoek leku hori hartzea gaizki ikusia izan da”

Maialen Madariaga
Ain1 taldeko kidea

ra ezin daitezkeen maila desberdinetan daudela.

Itsaso Gutierrezen iritziz emakumezkoek eta gizonen kontua izan da oso desberdina” da. Musikari donostiarrek hamabost urte daramatza musikan euskal eszenako oholtzara anitzetara igotzen. Jotzeko eraren gaine-



Maialen Madariaga (ezkeretik hasita lehena) bere taldeekideekin. Diska berriaren grabaketan murgilduta dago Ain1 talde arrasatearra. ARGAZKIA: Argia

tik, bere irudia eta estetika epaitu dituzten jarrera matxista ugarirekin egin du topo. Hala ere, hasi zeneko aldarri berarekin jarraitzen du: “Musikari gisa epaitua izan nahiko nuke, ez emakumezko musikari gisa”.

Maite Arroitauregi haratago doa: “Uste dut garrantzitsua dela aipatzea musika kritikak idazten dituztenak gizonen kontua izan ohi direla eta, beraz, gizonen ikuspuntutik idazten dutela. Emakumezkoen musika baloratzen dutenean paternalismora jotzen dute askok”. Haatik, onartzen du gehiagotan konparatu

“Historikoki beti egon gara gu azpian eta urte askotako atzerapena dugu zentzu askotan. Egoera horri buelta emateko uste asko behar dira”

Ilargi Agirre
Perlak taldeko bateria jotzaile

“Norberaren autokritikak, norberaren hausnarketa individualak eramango gaitu aldaketa kolektibo baterantz. Ez hitzek, ekintzek baizik”

Itsaso Gutierrez
On taldeko abeslari eta gitarra jotzaile

izan dutela gizonen kontua emakumezkoekin baino.

“Ez luke behar, baina, zoritxarrez, hala gertatzen da. Kalitate berdineko musika eginda emakumezko izateagatik ez dute hainbeste kontuan hartzen”, onartu du Ilargi Agirrek emakumezko musikariei egin ohi zaizkien kritikez galdetzerakoan. Hala ere, kontrakoa ere gertatzen dela aitortu du; hots, emakumezkoek osaturiko taldea izateagatik ere deitzen dietela zenbaitetan.

Bestalde, Maialen Madariagak ez du Gutierrez, Arroitauregi eta Agirreraren iritzia berarekin bat hartzen: “Kritika edo balorazioa kalitatezkoa baldin bada, behintzat, ez dut uste sexuaren desberdintasunak ez baldintzatzen duenik”. Emakumezkoek egin-

dako musikari balio handia ematen zaiola deritzo.

Klizeak eta estereotipoak

Gizartean gailentzen den genero dikotomiak eraginda, oso bestelakoak dira emakumezkoek eta gizonen kontua bizi dituzten esperientziak. Musika ez da salbuespena. Estereotipo eta klizeak asko zaildu dezakete izatez nahiko nekeza den bidea. Ilargi Agirrek ez du uste musika sortzerako orduan emakumezko izatea baldintzapena denik, baina jendaurrean jotzean bizi dutena bestelakoa da: “Kontzertu batzuetan komentario nahiko matxistak entzun behar izan ditugu, gizonen kontua batek inoiz entzungo ez litzukeen komentarioak. Esango nuke horrelako egoerak bizi izan ditugula emakumezko izateagatik”.

Itsaso Gutierrezek aitortu du garai gorabeheratsuzko bizi izan zituela, besteak beste, bere musikan ezin zirelako emakumezkoekin loturiko ezaugarriak identifikatu. Ahots fin eta goxoa ez edukitzeak ziurtasun eza eragin zion sasoi batean. Horrez gain, iruzkin sexistak entzutea, objektu sexual sentiaraztea, norberaren lana gutxietsia izatea... jasan behar izan ditu. Zorionez, hori gutzia atzean utzi eta au-



Instrumentu eta erritmo asko menperatzeko gaitasuna du ezaugarri nagusi Mursegok.
ARGAZKIA: Goiena

rrera egiten ikasi du On taldeko buruak: “Norberaren autokritikek eta hausnarketa indibidualak eramango gaituzte aldaketa kolektibo baterantz. Ez hitzek, ekintzek baizik”.

Ikuspuntu kontua

Gizarteak eraikitako generoek eta bakoitzari erantsitako behar eta ezaugarriek eraginda, gizezkoek eta emakumezkoek errealtate oso desberdinak bizi dituzte euren egunerokoan. Musikaren esparruan artista maskulinoak gailentzen edo nagusitzen diren heinean, begirada ugari galtzen ditu gizarteak; mundua ikusi eta ulertzeko modu asko isilditzen baitira.

Maialen Madariagak dio publikoki azaltzen ez diren arren, musikaren atzean emakumezko

izen asko daudela, hitz eta musika egile ugari daudela, alegia. Bestalde, gizezkoen idazteko modua ere zerbait aldatu dela uste du: “Gaur egun gizezko ikuspuntua horren nabarmena ez duten hitz asko daude”.

Emakumezkoek egindako musikaren beharra aldarrikatzen du Maite Arroitauregik, emakumezkoaren eta gizezkoaren errealtateak desberdinak direla irizten baitu. Hala ere, ez du gustuko estereotipatua den emakumezkoen musika etiketa, “arina, polita eta sakontasunik gabekoa” den musikarekin lotzen dutela uste baitu.

Itsaso Gutierrezen aburuz bakarka egin daitekeen ariketa aberasgarria da musika, “barneak husten” laguntzen baitu. Zentzu horre-

tan, emakumezkoek egindako musika premiazkoa iruditzen zaio: “Musikaren bitartez gure munduaren ikuspegia, sentitzeko era, gure haserreak... agertzea ezinbestekoa ikusten dut. Erreprimetuta eta mugaz josirik bizi izan garenez, haserre eta minak kaleratu eta aldarrikatzeko erabiltzen dut nik musika. Herri baten historiaren isla izan daiteke, kantuetan esaten dena izan ohi baita garaiko egoera politiko eta sozialaren isla. Emakumezkoak hitzez eta presentziaz bertan egotea oso garrantzitsua dela uste dut”.

Ilargi Agirrek ez dauka oso argi beraien hitzetan emakumezkoek musika egiteko behar hori islatzen denik, baina musika egiterakoan gizezkoen pare egotea aberasgarria dela deritzo, “emakumezkoen ikuspegia” ere plazaratu dadin.

Oholtzatik kanpo

Eszenatoki gaineko ikusgarritasuna eta jarrerak aztertzea bezain garrantzitsua da bestaldean dagoena ikertzea, musikariak aurrean duten jendeari aurkezten baitiote sortutakoa. Kontzertuak epaiketa gisa uler daitezke: musikariak egindako lana defendatzen du publikoaren aurrean eta, hitzen beharrik gabe, begi bistakoa izan ohi da jendeak lan horren aurrean sentitu duena.

Musika gizartearen isla den heinean, egunerokoan pertsona orok aurki ditzakeen aurreiritzi eta juzguak noiznahi ageri dira, oholtza gainean zein oholtzatik kanpo. Musikariak baldintzatuta senti daitezkeen moduan, publikoarengan ere beldurrak eta jarrera kikilduak nabariak dira.

Itsaso Gutierrezek jarrera oso desberdinak ikusten ditu On taldearekin oholtzaratzen diren: “Emakumezko gehienak eutsiak egon

Emakumezkoen bozgorailua

Saioa Cabañas Barrenetxea (Bilbo, 1982) da Emarock egitasmoaren sustatzaile eta koordinatzailea. Argazkilaritza du ogibide, emakumezko musikariei protagonismoa eta espazioa eskaintzea amets. 2012. urtean jarri zuen martxan proiektua “*Emarock: Iragana, oraina eta geroa*” argazki erakusketarekin. Harrez gero, Euskal Herriko dozenaka herri bisitatu dituzte erretratuek.

Egitasmoa ez da erakusketetara mugatzen. Historian zehar emakumezkoek musikarekin izan duten lotura eta Euskal Herrian egon diren taldeak ikertzeaz ere arduratzen da. Emakumezko musikariak arlo publikora erakartzea eta horien lana ikusgarri egitea du jomuga. Hori guztia kudeatzeko *Emarock Kultur Elkartea* eratu zuten 2011. urtean. Proiektura jende asko bildu bada ere, gehienak emakumezkoak izan dira, beraien ikuspegiari lehentasuna ematen baitzaio.

Hiru urte pasa dira proiektua abian jarri zenetik eta ekimenez ekimen egitasmo indartsu eta anizkuna bilakatu da. Egunez egun, emakumezko musikarientzat eredu izango diren taldeak batzeko lanean dihardute. Eta proiektuak ez du etenik izango helburu hori erdietsi arte.

Emarockerako Olatz Aldasorok egindako logoak artistikoki biltzen ditu egitasmoaren helburu guztiak: anplifikadore batek adierazten du proiektuak emakumezko musikarien bozgorailu izan nahi duela.





Eskarmentu handiko musikaria da Itsaso Gutierrez. Jaiko Barik eta Xarma taldeentatik pasatu da, besteak beste. ARGAZKIA: Onmusika.com

ohi dira, hitzak abestu eta irribarreak elkartrukatzeko dituzte, baina oinak lurrean itsatsirik mantenduz. Inguruan dituzten ikusleak dantzan eta gozatzeko ari badira, errazago askatzen direla iruditzen zait. Gizonezkoak, oro har, askeagoak ikusi ohi ditut. Besoak tente, oihuka abesten, aurpegian haserrea adieraziz, tximak eta burua astintzen, gorpuzta jarrera makurtuan...". Musika guztion errealitatea eta esparrua dela aldarrikatzen du eta horregatik, guztiok era libre batean partekatzen, gozatzeko eta adierazteko ikasi behar dugula uste du: "Gero eta emakumezko ikusle gehiago egon, eta kontzertuetan gero eta jarrera askeago eta desinhibituagoa izan, orduan eta errazago suertatuko da oholta azpitik gainerako jautzia".

Ilargi Agirrek ez du emakumezkoen eta gizonezkoen jarreraren artean ezberdintasun handirik ikusten. Jendeak dantza gutxi egiten du beraien kontzertuetan, baina hori euskaldun izateagatik dela dio barre artean. Jendearen erreakzioei erreparatuz gero, batzuetan komentario matxistak eta sexistak entzun behar izan dituztela dio Perlak taldeko bateria-jotzaileak: "Zein ondo jotzen duzun..." esan izan didate askotan eta nabari izan dut '...neska izateko' pentsatzen ari zirela. Lekuz kanpo dauden zenbait iruzkinekin egin dugu topo, baina gutxiengoa dira". Bestalde, bateria-jotzailea den aldetik, aurreiritzi ugari ere egin behar izan dio aurre, bateria jotzen duten neskek lesbianatzen hartzen baitituzte askok.

Rock eszena zulatzen

ZULOAK

Fermin Muguruzak zuzendutako eta Eider Rodriguezek idatzitako proiektu batek hankaz gora jarri zuen euskal gizartearen. *Zuloak* dokumental faltsuak emakumezkoen osaturiko punk talde baten istorioa islatzen du. Emakumezkoen ikusgarritasuna xede duen proiektu feministak (sustatzailea gizonezkoa bazen ere) guztiz maskulinoak den Euskal Herriko rock eszena astindu zuen. Besteak beste, oholta gainera igotzean artistek sentitzen dutenaz eta publikoak duen pertzepzioaz hausnartzen du. Ondorio argi bat atera zuten Zuloak taldeko kideek: klise eta estereotipoek eraginda emakumezko musikariek, askotan, ez dute nahi beste disfrutatzen. Izan ere, emakumezkoen eszenatoki gaineko zenbait ekintza gizarteak probokaziotzat jotzen dituen bitartean, gizonezkoen ekintza berdina edo antzekoak jarrera arrunt gisa ulertzen dira.

Maite Arroitauregi guztiz bat dator ondorio horrekin eta bizi dugun sisteman aurkitzen du horren arrazoa: "Sistema patriarkalak bultzatzen duen oposaketak arlo publiko eta pribatua, emakumezko birjina eta prostituta, banatzen ditu. Musikan, arlo publikoan, aritzen den emakumezko prostitutaren modeloarekin lotzen da; hau da, bere egiteko moduak konnotazio sexual negatiboa du eta ideia hori emakumezkoen gorputzaren presentziak bultzatuko du".

Eszenatoki gainera igotzen den emakumezkoak bere nortasuna beldur gabe adierazteko aldarria egiten du Maialen Madariagak. Egoera normalizatu batera iritsi ahal izateko oholtzan eta bertatik kanpo emakumezkoek

duten jarrera berdina izan beharko litzatekeela deritza: "Argi dago oholta gainean dagoen emakumezkoak, oholtzatik kanpokoaren berdin, estereotipo batzuk bete behar dituela gizartearen onartua izateko. Horregatik, 'probokaziozko ekintza' horiek egunerokotasunean egin ezin dituen bezala, oholta gainean ere gaizki ikusten dira. Jarrera horiek geroz eta gehiago errepikatuko balira, normaltzat joko genituzke".

Maite Arroitauregi eta Maialen Madariaga bezala, Ilargi Agirre ere bat dator Zuloak taldeko neskek ateratako ondorioarekin: "Emakumezko bat oholta gainera igo eta objektu sexual bat dela uste du zenbaitek eta ez luke hala izan behar, denak baikara musikariak". Bestalde, gizonezkoen inguruko hausnarketa interesgarri bat burutzen du; izan ere, betidanik egon izan dira oholta gainera kamiseta gabe igotzen direnak, baina nekez ikus dezakegu bularretako hutsean dagoen emakumezko bat eszenatokian.

Itsaso Gutierrez, aldiz, oso kritikoa agertzen da probokazioa tarteko dagoenean: "Badira sedukziozko jarrera erabiltzen duten hainbat emakumezko, probokazio bila akaso. Nik, pertsonalki, ez ditut gustuko oholta gainean burutzen diren mugimendu seduktoreak, gizonezkoen begietara eginikoak, gizonezkoentzat desiragarri bihurtzen direnak, gizonezkoek eraikiak, gizartearen eginak... Are gutxiago rokeatzen". Musikari donostiarrek ez dituzte horrelako jarrerak ulertzen, hala ere, errespetatu egiten ditu, jarraituko duen patroia aukeratzeko norbera aske dela uste baitu.



Proiektuko kideak (ezkerretik eskuinera): Naiara Goikoetxea, Ainhoa Unzueta, Ursula Strong, Alba Burgos, Arrate Rodríguez, Izaskun Muruaga eta Tania de Sousa. ARGAZKIA: Argazki Press

“Aldarrikapenak eta salaketak egiteko eremu zoragarria da eszenatokia”



Hamaika antzezlanetan parte hartu ostean, ‘Utopian’ proiektuan murgilduta dago egun Arantxa Lurre.
ARGAZKIA: Simulacro Teatro

Ikasketaz kazetaria den arren, antzerkian aurkitu du bizitzaren zentzua Arantxa Lurrek (Bilbo, 1964). Simulacro Teatrotik taula gainean antzezteko aukera eskaini dio. ‘Utopian’ proiektuak, berriz, ondorengo belaunaldiei antzerkiarekiko grina eta sena transmititzeko abagunea. 80. hamarkadaz geroztik emakumearen ikusgarritasuna eta berdintasuna izan ditu lagun eta eragile. Izan ere, badaki gaur egun jarraitzen duen bidea aurreko belaunaldiek ere in zutela isilpetik, ukaziotik.

“*La mujer en las artes escénicas en Euskadi, siglo XX. Teatro*” liburuan pasa den mendeko artistak ikertu eta dokumentatu zenituen. Zer dela eta ekin zenion horrelako proiektu bati?

XX. mendeko antzerki sortzaile, zuzendari, antzerkigile eta euskal aktoreen ikusgarritasuna du helburu liburuak. Inon agertzen ez zirenez, neuk egin behar nuela sentitu nuen. Zaila izan da baina orain inork ezingo du beraien existentzia ukatu; izan ere, emakume horiek, garai hartako gizonezkoekin batera, gaur egungo euskal antzerkiaren sortzaileak dira. Argazki bat ikusi nuenean hasi zen guztia: emakume bat eta gizonezko bat ageri ziren, biak aktoreak, eta gizonezkoaren izena bakarrik ageri zen. ‘Antzerkiaren historia ikertzen ari den pertsona ezin da horren subjektiboa izan’, pentsatu nuen. Pertsonaia guztiak dira garrantzitsuak eta, ziurrenik, emakume hori egongo ez balitz, ezingo litzateke antzerki-lana egin.

Gogor lan egin duzu XX. mendean zehar antzerkian aritu ziren emakumezkoen lana ikertu eta ezagutzera emateko. Gaur egunera arte beraien lana isilpean egotearen arrazoia aurkitu al duzu?

Emakumeok ez dugu ikusgarritasunik gizonezkoek agintzen dutelako. Kultura matxista gailendu izan da betidanik gizarteetan. Patriarkatua horren da zaharra... XX. mendeko lehen denboraldian, lehen aipatu argazkikoan, hasi zen emakumea antzerkian parte hartzen; beharrezkoa zelako sartu zen. Ordura arte obra errealistetan gizonezkoak emakumez mozorrotzen ziren, baina ez zen sinesgarria eta mezua ez zen behar bezala iristen. Gizonezkoek behar zituztelako sartu ziren emakumeak antzerkigintzan. Zorionez, denborarekin gizonezkoen pentsamoldea aldatuz doa. Emakumezkoen eta gizonezkoen jakintzen batasuna defendatzen dut nik.

Mendean zehar pairatu duten ukapen eta diskriminazioari aurre egin eta beraien bidea aurkitzen jakin dute emakumezkoek. Horren adibide da egungo egoera. Emakumezkoek aldi berean gauza askotan aritzeko joera dutela eta gizonezkoek, berriz, gauza bakarra aukeratu ohi dutela esan izan duzu.

Joera hori oso nabaria da Euskal Herrian. Nuria Espert-ek azaldu zuen behin zein zen horren arrazoia, eta guztiz ados nago: emakumezkoek ez bezala, gizonezkoek arrakasta lortzeko ardura dute. Guk, inork ez digunez kasurik egiten, gehiago arriskatzen dugu eta praktikoagoak gara. Horrez gain, urteetan zehar ez dugu sortzeko aukerarik eduki eta orain eztanda sortzailea bizi dugu. Alorren batean onenak izateko presioa sentitzen dute gizonezkoek; guk, berriz, inork ez duenez gugandik ezer espero, alor desberdinak probatzeko aukera dugu.

Egoerak hobera egin badu ere, oraindik asko dago egiteko. Sortzaileak ez dira ohartzen bizi duten ikusgarritasun eskas horretaz, oso subliminala baita. Bestalde, instituzioek ere ez dute egoera aldatzeko babes politikarik bultzatzen.

Emakumeok ez ditugu gizonezkoek dituzten aukera berdinak, zailtasun gehiago izan ohi ditugu. Beraz, normalizaziorako bidean tarteko fase bat egon beharko litzateke, non kupo batzuk ezarri beharko liratekeen, arrotza suerta daitekeen arren. Lan-talde baten %50 gizonezkoen artean onenek osatu beharko lukete eta beste erdia emakumezkoen artean onenak direnek.

Emakumezkoek arte eszenikoetan bizi duten egoera salatzen espazio egokia al da eszenatokia?

Aldarrikapenak eta salaketak egiteko eremu zoragarria da eszenatokia.

Jendeak ez ditu soilik tontakeriak ikusi nahi, eta kontrakoa dioenak zalantzan jarri nahi ez zuen zerbait zalantzan jartzea eragin diozulako esaten du. Ikusleen gehiengoak gauzak ikusi eta zer gertatzen den jakin nahi du. Eta antzerkiak hori egiteko aukera ematen du; izan ere, artea da, ez du kutsu politikorik. Eszenatokia ikusitakoaren inguruan etxean pentsatzeko aukera eskaintzen zaio ikusleari. Norberak bere modura egin dezake eta hori ideologia politiko bat baino interesgarriagoa iruditzen zait.

Filosofia horri jarraiki sortu zenuen Simulacro Teatro 1993. urtean Aintza Uriarte, Carlos Baiges eta Urtzi Ayorekin batera.

Fisikoa, poetikoa eta gizartearekiko erantzukizuna duen antzerkia egiten du Simulacro Teatrotik. Inoiz ez dugu diru-laguntzarik jaso eta eduki izan dugun gutxiarekin egin dugu aurrera. Bidegabekeria da, ezagutzen gaituen orok baitaiki kalitatezko antzerkiarekiko konpromisoa dugula. Hala ere, ahal duguna egiten dugu. Arima betetzea helburu duen antzerkia egiten dugu.

Egia da egiten duguna saldu nahi dugula, publikorik gabe ez baitago antzerkirik, baina ez dugu dirua lortzea xede. Dirua beharrezkoa den arren, ez dugu gure burua saltzen. Antzerkia artea da.

Zein garrantzia du antzerkiak zure bizitzan?

Antzerkiarekiko sentitzen nuena garatzen joan da nire bizitzan barna. Gaztetan kazetaritza ikasi nuen eta ez nuen aktore izateko asmorik. Gaur egun, berriz, guztiz maiteminduta nauka antzerkiak, nire bizitzari zentzua ematen dio. Funtzio sozial oso garrantzitsua betetzen du eta horrek erakartzen nau gehien. Mundua eraldatzeko gaitasuna du; gauzak zalantzan jartzeko tresna da, jendea tenteldu ez dadin. Antzerkia gertutik ezagutzen duen jendeak beste modu batera ikusten du mundua, berekoieria utzi eta ikuspuntu kolektiboago bat eskuratzen du. Hein handi batean antzerkiari zor diot nire bizitzak zentzua izatea.

Funtzio sozial hori du ardatz antzerki komunitarioak. Latinoamerikan ezagutu ostean, orain, Euskal Herriko zenbait auzo eta herritan lantzeko proiektua abian da.

Latinoamerikara joan ginenean antzerki aretoak bete egiten ziren gu ikusteko, baita beste taldeak ikusteko ere. Bertako sortzaile batek esan zidan gizartetik urrunduta edo banatuta zegoela hemengo antzerkia, ez zuela jendeari gertatzen zaionaz hitz egiten. Euskal Herrira itzuli ginenean antzerki komunitarioa egiten zuten pertsonak ezagutzen hasi nintzen. Arazo asko dituzten auzoetan egin ohi da horrelako antzerkia, ez baita gauza bera antzerki komunitarioa Getxon edo Otxarkoagan egitea, elkarrengandik hamabost kilometrora badaude ere.

Auzo bakoitzak bere arazo eta funtzionamendu propioak dituenez, antzerki komunitarioa bertako ezaugarrietara moldatzen da. Nola darmauzue Otxarkoagako proiektua?

27 pertsona elkartzen gara momentuz; gazteenak sei urte ditu eta zaharrenek 70. Proiektuan geroz eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta gehiago aldatuko da auzoa. Hego Amerikan esaten dute komunitatearentzat antzeztean iraultza burutzen dela, inoiz zalantzan jarri ez diren gauzak kolokan jartzen baitira. Otxarkoaga bezalako auzoetako biztanleek ez dute aldatzearekin amesten. Eta hobetzeko ideiarekin amesten ez baduzu, zure bizitza ez da inoiz aldatuko. Amesteko eta beraien errealitatek aldentzeko



Simulacro Teatro taldea 'Paren el mundo' obra antzeztzen.

ARGAZKIA: Simulacro Teatro

aukera eskaintzen die antzerkiak. Oso interesgarria da azken bi urteetan garatu dugun proiektua, baita oso gogorra ere. Izan ere, pertsona batek ez badu amesteko gaitasunik, ez badu bere ingurutik edo girotik ateratzeko aukerarik, betiko puntu ilunean mantentzen da. Egoera hori onuragarria da gizartearentzat, sistemarentzat. Eta biztanleak ez dira ohartzen sistemarentzat komenigarria dela jendeak ez galdetzea, zalantzarik ez izatea.

Errealitate gogorra eta konplexua izateak emaitzekin gehiago gozatea eragiten al du?

Oso gustura nago. Zenbaitetan gogorra izaten da beraien auzoaren inguruan hitz egin behar dutelako. Otxarkoagan 80. hamarkadan galdutako belaunaldiaz hitz egiten ari dira; guztiak ezagutzen dute drogen eraginez hil zen jendea. Gertutasun hori dela eta, ez daude salatzen prest. Eta zenbaitetan kostatzen da dramaturgiarekin aurrera egitea.

Baina oso gauza politak lortzen ditugu. Esfortzu handia eskatzen digu, normalean egiten dugunarekin zerkusirik ez duelako. Ohiko antzerki talde batetik haratago doa antzerki komunitarioa; auzoa aldatzea du helburu.

Antzerki komunitarioa 'Utopian' izeneko proiektuarekin uztartzen duzu. Tartean, XX. mendeko antzerkigintzarekin egin bezala, dantzan eta musikan aritu ziren emakumeen lana ikertzen ari zara.

Carlos Baiges, Aintza Uriarte eta nire proiektua da 'Utopian'; geroago, Urtzi Ayo batu zen. Erakustea helburu zuen antzerki individualistatik antzerki sozialago batera egindako garapenen emaitza da. Komunitatean barneratzeko tresnatzat ikusten dugu antzerkia, baita gizarte eraldatzeko arte gisa ere. Hori da 'Utopian'. Diziplina anitzeko eremu abangoardista eskaini nahi diegu herritarrei. Eta horretarako lanean ari gara. Momentu honetan proiekturik garrantzitsuena da niretzat.

Horrez gain, "La mujer en las artes escénicas en Euskadi. Siglo XX. Teatro" liburuaren bigarren liburukia argitaratzea gustatuko litzaidake. Proiektu horrekin hasi nintzenean antzerkia, dantza eta musika ikertzea, eta XX. mendeko emakumeen lana ikusgarri egitea nuen helburu. Uda honetan dantzaren liburua amaitu eta musikarekin hastea gustatuko litzaidake. Azken helburua horiek argitaratzea litzaitenke.

"Antzerkiak mundua eraldatzeko gaitasuna du. Gertutik ezagutzen duenak beste modu batera ikusten du mundua, berekoieria utzi eta ikuspuntu kolektiboago bat eskuratzen du"



"XX. mendean hasi zen emakumea antzerkian parte hartzen. Ordura arte obra errealistetan gizonetzkoak emakumez mozorrotzen ziren, baina ez zen sinesgarria eta mezua ez zen behar bezala iristen. Gizonezkoek behar zituztelako sartu ziren emakumeak antzerkigintzan"



"Fisikoa, poetikoa eta gizartearekiko erantzukizuna duen antzerkia egiten dugu. Ezagutzen gaituen orok badaki kalitatezko antzerkiarekiko konpromisoa dugula. Arima betetzea dugu helburu."



Adin eta mota guztietako emakumeek dute lekua Ainhoa Agirreazaldegi eta Uxue Alberdik sustatutako Bertso Eskola Feministan. ARGAZKIA: Argia

Amonarik gabe hezi diren ahizpak

Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) hitzarekin jolastea izan du afizio betidanik eta denborarekin ofizio ere bilakatu du, idazlea, kazetaria eta bertsolaria baita. “Bertsolaritza: Begirada Feminista” izeneko hitzaldietan trebaturik, Bertso Eskola Feminista sortu zuen duela urte eta erdi inguru Ainhoa Agirreazaldegiarekin batera. Besteak beste, bertsolaritzaren gaur egungo egoera, emakumeen estrategiak, neutraltasun eza, genero eraikuntzak edota emakumera batua ikertu dituzte.

Gaur egungo bertsolariak gizonezko aurpegia du. Ahots sendoarekin abestea, arrazoiketarako gaitasuna izatea eta erantzun azkarrak ematea ditu ezaugarri nabarmenenak. Gizartearen baitan eraikitako genero dikotomiari jarraiki, maskulinitatearekin loturiko tasunak dira, sexu maskulinoaren gailentasunaren oinarrian daudenak. Horiek dira, hain zuzen, bertsolari batengan gehien baloratzen diren bertuteak. Estitxu Eizagirrek (Hernani, 1979) gizonezkoek gizonezkoentzat eginiko jarduntzat definitzen zuen bertsolaritza. Eta ez zebilen oker; bertsolarien % 80 inguru gizonezkoak dira eta. Duela 30 urte ez zegoen emakumerik Euskal Herriko plazetan. Ondorioz, historikoki, gizonezkoek gidatu izan dute bertsolaritzaren norabidea.

Bertsolaritza garaikideari so eginez, Uxue Alberdik onartzen du egoera asko aldatu dela, baina baita dena aldatzeko zegoela ere: “Gizonezkoen gaitasunen, beharren, testuinguruaren arabera garatutako jarduna izan da bertsolaritza eta emakumezko bertsolariak egitura horretan integratzen goaz. Baina egitura bera oraindik jatorrizko gizonezko haien inertzia-

tik sorturikoa da”. Tristuraz azaltzen du gizonezkoen gailentasun horrek emakumezkoen urritasuna eragin duela eta, ondorioz, emakumezko helduen ahotsa galdu duela gizarteak. Gauzak horrela, gaur egungo emakumezko bertsolarien erreferente falta nabarmena da. “Guk beti esaten dugu eduki ditugula ahizpa gutxi, amarik ez eta amonarik ere ez. Gure erreferente guztiak maskulinoak izan dira. Jaso dugun umore eta dialektika haria, bertsotan egiteko moldeak, posturak, bertso sistema egituratzeko modua, puntuagarriak diren ariketak, jarraitzen diren irizpideak... hori dena dator emakumerik ez zegoen garaitik”.

Historian zehar maskulinoaren eremua urratu eta gizonezkoen artean lehiatzea lortu duten emakumezkoak egon badaude, baina banaka azaldu izan dira. Horren adibiderik gertukoena dira Kristina Mardaras (Iurreta, 1948) eta Arantzazu Loidi (Aretxabaleta, 1967). Azken bi hamarkadetan entzun dira emakumezkoek egindako bertso gehien, banaka agertetik taldeetara osatuzera pasatu baitira. Amaia Agirre, Maialen Lujanbio edota Iratxe Ibarra izan dira, besteak beste, bide urratzaileak. Emakumezko

bertsolarien lehen belaunaldi honengan gizonezkoekin lotu ohi diren ezaugarriak identifikatu daitezke. “Tradizionalki maskulinoak izan diren jardun guztietan sartzen diren lehenengo emakumeak inguru maskulino batean ontzat ematen diren ezaugarriekin sartu izan dira: ahots sendoa, gorputz sendoa, lotsagabeberria, ez kikiltzea, arrazoitze azkarra... Nik uste dut biziraupen ariketa bat dela”, adierazi du Uxue Alberdik. Kosta bazitzaie ere, emakumezko horiei bertsolari izatera onartu zitzaizela deritzo bertsolari elgoibartarrak, baina aitoren hori emakume izatera ukatzearen truke eskuratu zutela jakinarazi du.

Urte batzuk geroago agertu zen bigarren belaunaldiaren bidea ere izan zen bertsolari talde hark. Denborak aurrera egin ahala genero kontzientzia areagotzen joan da eta bigarren belaunaldiko bertsolarien molde propioa garatzen jakin dute. Publikoak errazago identifikatzen ditu emakumezko bezala, baina ez bertsolari bezala, akaso: “Emakume izateaz daukagun konstruktio estetiko, politiko, ekonomiko eta jarrerazko hori, errazago identifikatzen da gudan. Baina horrekin baditugu

zenbait aje, ez zait iruditzen libreki egindako hautua denik. Bigarren belaunaldiko emakumeok estrategia horretan mantentzeko modua egokia eta neurtua izatea da: alai bai, baina ez txolina; azkarra bai, baina ez pedantea; seduktorea bai, baina ez puta...”, azaldu du Uxue Alberdik.

Bi belaunaldi horien arteko desberdintasunak nabariak diren arren, biek dute zerbait komunean: eraikuntza sozialak. Generoak gizarteak eraikitakoak diren heinean, ezaugarri edo balio batzuk egotzen zaizkie, pertsonen jokaera eta irudia baldintzatuko dituzten ezaugarri eta balioak. Zentzu horretan, gorputzak uste baino garrantzi handiagoa eskuratzen du plazan. “Egiten duzun guztia gorputz batetik dator eta zure gorputza genero dikotomiaren arabera sailkatua dago gizartean. Alde horretatik, gizonezkoei eta emakumezkoei egokitu zaizkigun rola desberdinak dira eta bakoitzarengandik espero dena ere ez da berdina”, dio Uxue Alberdik.

Horrek guztiak erakusten du ezin dela neurtasunaz hitz egin ez bertsoaritzan, ezta gizartean ere. Aukera berdintasunean ardaztu eta hura aldarrikatzen den arren, Uxue Alberdiren ustez garrantzitsuagoa da posizio berdintasunari erreparatzea: “Neskato edo mutiko bat plazan sartzen denean, entzuleen eta epaileen juzguen menpe, antolatzaileen gustuen eta aukeren menpe dagoenean, genero dikotomiak izugarritzko pisua hartzen du. Izan ere, ez gaude berdin entrenatuta publikotasunerako, ez eta kritikak eramateko. Neutroak garela pentsatuz hezi gaituzte, baina gu ez gara neutroak”. Hori horrela, bertsoaritzan diskurtso feminista barneratzearen alde azaltzen da Uxue Alberdi, dena eraikia dagoenez, deseraiki eta berreraiki daitekeela erakusten baitu.

Berezko hizkuntza

Gizonezkoen hegemoniaren aurrean emakumera batua aldarrikatu zuen duela zenbait urte Estitxu Eizagirrek. Gaur egungo komunikazio publikoan gizonkera batuan (maskulinitasun hegemonikoaren balioetan eraikia) egiten dela ohartuta, emakumezkoei publiko orokorrekin komunikatzea ahalbidetuko dien gramatika berri bat eraikitzearen aldeko hautua egin zuen kazetari hernaniarrak. Emakumezkoaren azentua ezagutu eta hari balioa ematea, munduan egoteko duen modua hautatzea, bere burua hobeto ezagutzea, entzuleekin konplizitate lortzea... hori guztia barne hartzen du emakumera batuak. “Hizkuntza berri hori eraikitzeko, ezinbestekoa da emakumezkook emakumezkoon artean ge-

hiago kantatzea eta ikustea zeri egiten diogun barre, zeintzuk diren gure kontraesanak...”, ondorioztatu du Uxue Alberdik.

Plazatik mundura

Uxue Alberdik uste

“Tradizionalki maskulinoak izan diren jardun guztietan sartzen diren lehenengo emakumeak inguru maskulino batean ontzat ematen diren ezaugarriekin sartu izan dira. Nik uste dut bizi-raupen ariketa bat dela”

.....

“Hedabideek gertatzen denari buruzko ikuspegi sakonago bat eskaini beharko lukete, azaleko begiradan sakondu eta diskurtsoen atzean zer dagoen eta zein harreman mota dauden zehetza dagokie”

Uxue Alberdi

Etorkizuneko erronkak

“Erronka nagusienetariko bat da betaurreko antisexistak jantzita dauzkaten elementuak gehitzea, bertsoaritzan eta oro har jardun publiko eta pribatuetan, leku guztietan, bestela oso poliki dihoalako kontua”. Autoreez gain, betaurreko moreekin begiratzen duten gai-jartzaileen, epaileen, kazetariaren, kronisten, teoriarariaren, irakasleen... beharra aldarrikatu du Uxue Alberdik.

Emakumezko gehiagoren beharraz ohartzen garen arren, egoera hori aldatzeko aurrerapauso gutxi egiten direla salatu du elgoibartarrak: “Proposatuko bagenu neska gazte-entzako propio bertso-eskolak edo irakasleak jartzea txiki-txikitatik hezi daitezen... Plazetan emakumezko gehiago egoteko erabakiak hartuko bagenitu... Baina izugarritzko beldurra ematen du horrek. Zer egin nahi dugun eta horretarako zer egiteko prest gauden pentzatu behar dugu kolektiboki. Gizonezkoek ere beraie aldetik sentitu eta pentzatu beharko dute”. Ikuspegi feministaren eragina haratago doa. Ez da soilik aukera edo posizio berdintasunaz mintzo, “botere birbanaketa” jokoan dagoela adierazi du Uxue Alberdik: “Igor Elortzak behin aipatu zuen plazetan emakumezko gehiago egon behar badira, gizonezko gutxiago egon beharko direla. Eta, gauzak horrela, emozio horiek kudeatu egin behar dira”.

Bertsoaritzan tradizioan errotutako jarduna da eta badaude idatzizkoak ez izanagatik ere, ukiezinak diren arauak. Esaterako, bertso saioen osten horretaz ez hitz egitea. “Garrantzitsua den beste erronka bat da bertsoaritzan dauden arau ezkutak, isilpeko arauak, bistaratzea eta horietaz hitz egiten hastea. Saioak amaitzerakoan beste gai batzuei buruz hitz egiten hasten gara eta oso gutxitan aipatzen ditugu bizi izan ditugun emozioak”, aditza eman du Uxue Alberdik.

Jardunetik ekintzara

Genero ikuspegia bertsoaritzan txertatzea, Bertsozale Elkarteko Genero Taldea sortu zen 2009. urtean. Elkarteko sail guztiekin aritzen da elkarlanean genero ikuspegia eta parekidetasuna sustatuz.

Urtarrilean Donostian egin zen Bertso Eguna antolatzeaz arduratu zen. “Azalera” leloa zuen jardunaldian genero ikuspegia izan zen protagonista. Duela urte batzuk pentsaezina litzateke bertsoari eskainitako ekitaldi bat horrelako gai batean ardaztea, baina azken urteotan emandako aurrerapausoek ezinezkotzat jotzen zena errealitate bilakatu dute.

Bertsozale Elkarteko Genero Taldeko kide Nere Erkiagak azaldu du proposamena lehenagotik ere bazegoen arren, aurtun egitea erabaki zutela: “Duela zazpi urte Bertso Eguna antolatzea eskaini ziguten, baina une hartan ez genuen argi ikusi. Azken urteotan pausoak eman dira, gogoeta asko egin da eta jendea genero ikuspegiarekin aberastu da; prozesu bat egon da”.

Aurtengo Bertso Eguna ospatzeko espiritua iragan urtean Askizun egindako topaketetan ernatu zen. Nere Erkiagak bertako poztasuna eta talde izaera nabarmendu ditu: “Emaizta ederra da, baina prozesua bera izan zen interesgarriena. Parte-hartzailea izan zen, adin desberdinetako 30 emakumezko inguruk gaiak proposatu eta talde ezberdinetan landu genituen. Ondoren, Iraia Eliasek forma artistikoa eman zion guk proposatutakoari. Genero gaiak oholtzaratzeko prozesua oso interesgarria izan zen”.

Gaiaren dimentsioak ongi baino hobeki ulerturik eta garrantzia kentzeko asmorik gabe, Bertso Eguna umorean oinarritzea erabaki zuten. “Gauza asko esan eta jendearengana hurbiltzeko modu bat da umorea, ona denean, noski. Umoretik lan egin nahi genuen eta ez biktimismotik edo haserretik, horrek ez duelako ezer aldatzen”, jakinarazi du Erkiagak.

Emakumezko guztiak barne hartuko zituzkeen Bertso Eguna antolatu nahi izan zuten: “Esan dezakete emakumezko guztiok berdin pentzatu dugula, aldaketa burutzeko gauza berdinak egitearen alde gaudela, baina ez da horrela; bakoitzak bere ideiak eta formak ditu eta denak dira posible”.

Belaunaldi desberdinek esperientziak eta gogoetak elkartrukatzeko aukera izan zuten Bertso Egunean. Ondorengo belaunaldiei itxura ona hartzen die Bertsozale Elkarteko Genero Taldeko kide Nere Erkiagak: “Gazteengan aurrerapen handia ikusten dugu. Gaur egun duela urte batzuk baino kontzientziadun gehiago dago gazteen artean. Eta horrek poztasun handia ematen du, ideiak dakartzalako”.

La vie d'Adèle, Abdellatif Kechiche, 2013

Ikusezinena

Filmaren izenburua: La vie d'Adèle

Puntuazioa: ***

Zuzendaria: Abdellatif Kechiche.

Aktoreak: Adèle Exarchopoulos, Léa Seydoux, Salim Kechiouche, Mona Walravens, Jérémie Laheurte, Alma Jodorowsky, Aurélien Recoing, Catherine Salée, Fanny Maurin, Benjamin Sikou, Sandor Funtek, Karim Saidi.

Gidoia: Abdellatif Kechiche, Ghalia Lacroix (Eleberririk grafikoa: Julie Maroh).

Argazkia: Sofian El Fani.

Musika: Askoren artean.

Herrialdea: Frantzia.

Urtea: 2013.

Generoa: Drama erromantikoa.

Iraupena: 180 minutu

Maitasunaren hiriburuaren herrialdea du eszenatoki *La vie d'Adèle* filmak. Kontserbadorismoak gora egin duen honetan, homosexualitatearen gaia puri-purian dago frantziar gizartean. Abdellatif Kechiche zuzendari franko-tunisiarrak ausardiaz jokatu du bi emakumeren arteko maitasun harremana era gordin eta naturalean landuz. Ez da hasiberria, lan ugarian parte hartu izan du aktore, zuzendari eta gidoilari lanetan. *La vie d'Adèle* zuzentzen duen laugarren filma da, baita sari gehien irabazi dituen ere. Cannesko Zinemaldian, Urrezko Globoetan edota Goya sarietan aintzatespen ugari bildu ditu, besteak beste.

Bi emakume gazteren arteko amodiozko istorioak munduko ikusleak asaldatu ditu. Adele, hamabost urteko neska, da pelikulako protagonista. Bere sentimenduen eta nortasun sexualaren bilakaera ditu ardatz obrak. Emma izeneko Arte Ederretako ikasle bat ezagutzeak ordura arteko "ordena" hanzka gora jartzen du; espiritu askea baita Emma, bizitzaren gazi-gozaok sobera ezagutzen dituena. Desioak batzen ditu bi protagonistak; heldutasunak, banatu. Elkarrekin hazten dira, elkarrekin egiten diote aurre familia eta lagunen aurreiritzi eta begirada zorrotzei.

Harreman lesbikoen ikusgarritasunean oinarritzen da filma, harreman sentimental zein sexualetan. Patriarkalak diren gizarte europarren baitan pertsona homosexualak hamaika oztopo gaituzte behar baldin badituzte, lesbianek traba bikoitzei egin behar diete aurre. Azken hamarkadetan gayek eta lesbianek egin dituzten aurrerapausoak alderaezina dira; izan ere, gizonezkoek onarpen sozial handiagoa eskuratu dute. Film honek sortu duen zalaparta da horren erakusle. Esan beharrik ez dago, sexu eszena esplizituek ere izan dutela bere eragina. Bestalde, protagonisten arteko harremana sobera mitifikatua eta topiko betea dagoen maitasun erromantikoa bainan koka daiteke. Hala ere, goraiatzekoa da protagonistaren nortasun sexualaren baieztapenaren aldarri iraultzailea. Bigarren planoan bada ere, frustrazioa, bakardadea eta pasioa ere nabari dira istorioan.

Naturaltasuna dario Adeleri (Adèle Exarchopoulos) mugimendu eta jarrera guztietan. Behin eta berriz ageri diren plano laburrak dira horren erakusle: negar egitean sudurretik labaintzen zaizkion mukiak, tomatez zikitzen diren ezpainak, galduta dauden begiradak... Bikain antzestu ditu bere gaztetasunari lotzen zaizkion inozentzia, jakin-mina, ausardia eta freskotasuna.

XXI. mendean bizi garen honetan, horrelako pelikula bat ikustean ez ginateke ausardiaz mintzatu beharko, baina, tamalez, hala da. Abdellatif Kechiche zuzendariak lesbianen ikusgarritasunaren aldeko lana egin du (nahita ala nahi gabe egin duen jakitea interesgarria litzateke) gizartearen eragin handia duen ikus-entzunezko formatuan. Topikoak topiko eta mitoak mito, jorrotutako gaia landu izanak du balio gehien; komunikabide, telebista saio eta pelikuletan oso gutxi aipatzen diren kontuak biltzen baititu *La vie d'Adèle* filmak.



Berezia eta ausarta den nobedadea

Naiara Anasagastik (Paniks) eta Sergio Llanosek (Eureka Hot 4 eta Atom Rhumba) osatzen dute Bakelite taldea. Perkusioa jo eta abestu egiten du Anasagastik. Llanosek, aldiz, gitarrak, baxua eta teklatuak jotzen ditu. Pasa den urtean Barakaldoko BECen egin zen BIME (Bizkaia Internacional Music Experience) jaialdian ekin zioten ibilbidearen lehen mugarrria da *Azeriak*. Ep bat eta kanta bakan batzuk argitaratu ostean, bikote bermeotarraren estreinako diskoa da.

Hamar abestiz osaturiko lan honek antzekotasun handiak erakusten ditu The White Stripes-en musikarekin. Izan ere, Jack White-k egiten duen blues-punk bereziaren tankerako soinua du. Sergio Llanosen gitarra garbiak abestien melodia erakusten du. Baina, melodia hori distortsio zikin bilakatzen da abestietako unerik indartsuenetan. Orokorrean, diskoaren doinuak riff-ak ditu oi-

Erraiak, Danele Sarriugarte. Elkar Argitaletxea; 2014 Izenburua: Erraiak.

Hausnarketa pertsonalerako gonbidapena

Izenburua: Erraiak.

Idazlea: Danele Sarriugarte Mochales.

Argitaletxea: Elkar.

Urtea: 2014.

Orrialde kopurua: 173

Euskal literaturaren mundua hankaz gora jarri duen obraren egilea da Danele Sarriugarte (Elgoibar, 1989). *Mamuak* nobela proiektua izan zen lehergaia, 2012. urteko Igartza sorkuntza-beka irabazi baitzuen. Sari horren bidetik argitaratu du *Erraiak* Elkar argitaletxearekin. Ez da literaturan egiten duen lehen murgiltzea, ipuin bat argitaratu zuen-eta *Esku hori!* (Txalaparta, 2012) bilduman.


Gaztetasuna ez da bazterrak astintzeko muga izan. Idazle elgoibartarraren lehen nobela izanagatik, ez da hasiberri direnen segurtasunik eza nabari. Hitz bakoitzean argi ikusten da autoreak eman nahi izan dion zentzua, pisua, norabidea. Ez dago kikilduririk, istorio gordin bezain naturala argitaratu du Danele Sarriugartek. Harremanak (senide, lagun edota bikote harremanak) ardatz harturik, gazteen egoeraz, gizarteaz, bizitza ereduez edota sentimenduez hitz egiten du. Ironia fina eta umore berezia duen emakume gazte baten posizioetik inguratzen duena zein barnean daramana kolokan jarri eta analizatzen du.

Kontaktak ez du egitura lineala jarraitzen, denboran aurrera eta atzera egiten du salto. Ez da kronologia istorioa gidatzen duena; emozioak, sentimenduak, baizik. Azken finean, hortan datza *Erraiak* liburuaren esentzia, emozioen zurrunbiloak gidatutako bakarriketa pertsonalean.

Kutsu intelektuala badu ere (erreferentzia artistikoz josita dago), istorioa gertukoa da. Irakurlearen identifikazioa edo enpatia bilatzen du, baita aurkitu ere. Protagonistaren azalpenetan xehetasuna da nagusi, muturrera eramandako xehetasuna, kontaktaren haria segitzea zailtzen duena. Puntuazio "minimalistak" ere ez du gehiegi laguntzen; esaldiak sobera luzeak dira eta bere izaerarekin bat ez datorren erritmo bizia eranstean diote istorioari.

Pertsonaia asko ageri diren arren, bakarrik bereganatzen du irakurlearen arreta. Y, Z, familia, lagunak... protagonistaren sentimenduak eta esperientziak hobeto ulertzeko aitzakia besterik ez dira. Eta izenik gabeko pertsonaiak izateak berak ezinhobeto islatzen du hori. Etiketak jarri izanak ez lukeelako ezer aldatuko. Ekintzek eta emozioek dutelako benetako garrantzia, ez pertsonek.

Azken finean, gogoeta pertsonala bultzatzen duen lana da *Erraiak*. Fikziozko pertsonaia baten bizipenetatik abiatuz, nork bere emozioak nola kudeatzen eta sentitzen dituen pentsarazteko aukera paregabea eskaintzen du. Obraren beraren argumentua baino, interesgarriagoa da irakurleari egiten dion hausnarketarako gonbidapena.



MUSIKA.

Azeriak, Bakelite. 2014

narri. Hala, errepikakorrak diren harmoniak distortsioekin eta bolumen eta erritmo aldaketekin uztartzen dira.

Taldeko karga teknikoa gitarrak darama; perkusioa oso sinplea da eta ez da erritmo aipagarrikeri ageri. Bakeliteko kide batengan aurki daiteke berezitasunik aipagarriena: Naiara Anasagastiri dagokio musikari erritmoa eta ahotsa jartzea. Oso gutxi dira abeslari eta bateria-jotzaile lana uztartzen dituzten profesionalak eta, are gutxiago, abesteaz gain perkusioa jotzen duten emakumeak.

Askotarikoak dira beraien abestiak, baita doinuak ere: rock-and-rolla eta bluesa nagusi diren arren, dub eta post-punk ukituak ere ageri dira Rafael Martinez del Pozok ekoiztutako diskoan. *Basoa* abestian nabaria da gitarrak bluesaren teknikak darabiltzala slide-a azpimarratzeko. Surf-rockaren eragina azpimarra daiteke *Indarra* kantan. Estilo berdintsua aurki daiteke *Merkatuan*, delay-engatik gehienbat. Country doinuak ere entzun daitezke Bakelite taldearen azken diskoan, *Nora* abestiaren hasieran edota *Basoan* kantan bertan, esaterako.

Bizkaiera eta euskara batua uztartzen dituen Bakelite taldeak lan ausarta dakarkio euskal musika panorama oparoari. Ikusiko dugu beraien estilo berezi eta zehatzak aldaketa egarriz dagoen publikoasetzea lortzerik ote duen.

dorothy arzner

Haizea kontra izanda ere, ekinez egina

Zinema munduko emakumezkoaren integrazioaren protagonista da Dorothy Arzner. Lanpostu ugaritatik igaro ostean, zuzendari izatera iritsi zen erabat maskulinoa zen Hollywooden.

XX. mendearen atarian jaio zen Dorothy Arzner (San Frantzisko, Kalifornia, 1897ko urtarrilak 3- La Quinta, Kalifornia, 1979ko urriak 1). Ez ziren garai errazak, emakumezkoak gizartean zuen parte hartzea oso mugatua zen testuinguruan bizitzea egokitu baitzitzaion. Orduko zinema industriaren egoera ere ezin da gaur egungoarekin alderatu, guztia zegoen egiteko. Hala ere, gogor borrokatu zen zinema estudioen arreta bereganatu eta pelikula zuzentzea erdietsi zuen arte.

Txiki-txikitatik zinema zuzendari eta aktorez inguraturik egon zen gurasoek Los Angelesen zuten kafetegian. Bertan ezagutu zuen zinema mutuko zuzendari William C. DeMille eta, orduan jakin ez arren, bere bizitza betirako aldatu zen.

Hegoaldeko Kaliforniako Unibertsitatean medikuntza ikasten aritu zen bi urtez eta mediku izateko nahiari jarraiki, anbulantzia gidari aritu zen Lehen Mundu Gerran. Baina, bizitzak eman ditzakeen biren erakusle, filmazio estudio bat bisitatu eta gero zinemarekiko interesa piztu zitzaion. Gaztetan ezagutu zuen William C. DeMilleri esker Hollywoodeko industrian sartu zen Players-Lasky estudioetan (gaur egungo Paramount) eszenografo lana eskuratu ostean.

Urte batzuen buruan izugarritzko bilakaera profesionala izan zuen: sinopsien erredaktore, filmazioko idazkari eta muntatzaile izan zen. Azken horri esker eskuratu zuen ospeak erein zuen zuzendaritzarako bidea; izan ere, 52 filmetan aritu zen muntatzaile lanetan. Talentu eta tradizio handiko profesionalen aitzindari izan zen: Anne C. Coates, Thelma Schoonmaker edota Dede Allen dira horren erakusle argienak.

Gaur egungo Hollywoodeko oinarriak ezartzen ari ziren XX. mendeko 30. hamarkadan. Kamera aurrean lan egiten zuten emakumezko aktoreak asko ziren arren, bakarra gailendu zen horien artean. 1927. urtean hasi zen lehen emakume zuzendariaren ibilbidea; *Fashions for Women* izan zen bere estreinako lana. Urtebete geroago, 1928an, estreinatu zuen *Manhattan Cocktail*-ekin soinudun film bat zuzendu zuen lehen emakumezkoa bilakatu zen. Harrez gero, hamabost pelikula zuzendutituen. Garai hartako gizartearen baitan



Gaur egun Paramount izenez ezagutzen den ekoiztetxearentzat lan egin zuen Dorothy Arznerrek. ARGAZKIA: Bobby Ríos TV

eztabaidagarriak ziren gai ugari landu zituen: ezkon-bizitzatik kanpoko sexu harremanak eta haurdunaldia (*Working girl*, 1931 eta *Christopher Strong*, 1933), klase sozial desberdinetako pertsonen arteko harremanak (*The Bride Wore Red*, 1937) edota prostituzioa (*Nana*, 1934 eta *Dance, Girl, Dance*, 1940).

Horrez gain, aurreikusteko zailak ziren eta gutxi lantzen ziren erregistroak irudikatzen ziren bere lanetako pertsonaia femeninoetan; garai hartan pentsaezina zen independentzia puntu bat ere erakusten zuten Esther Ralston-ek (*Fashions for Women*, 1927, *Ten Modern Commandments*, 1927), Clara Bow-k (*Manhattan Cocktail* 1927, *The Wild Party*, 1929) edota Ruth Chatterton-ek (*Sarah and Son*, 1930, *Anybody's Woman*, 1930) antzeztutako pertsonaiek.

Emakumezkoen eta gizonezkoen bereizketatik haratago, bere ikuste-estilo findua nabarmentzen dute kritikariek. Industriatik at, 60.hamarkadan mugimendu feministek ere gorapaitu zuten gizarteari egindako ekarpena; izan ere, garai hartako sexu rola eta emakumeak gizartean betetzen zuten funtzioa zalantzan jarri zituen.

Dorothy Arznerrek zinemari egindako ekarpenak ez dira genero ikuspegira mugatzen. Lan egiteko metodoetan ere zenbait aldaketa eragin zituen. 1929. urtean *jirafa* izeneko mikrofonoa asmatu zuen; ordura arte kamera ondoan kokatuta zegoen mikrofonora disimuluan hurbildu behar izaten ziren aktoreak. Baina zuzendari kaliforniarren asmakizunak aktoreak gertutik jarraitzeko aukera eskaini zien bere ondorengoei.

1932. urtean, Paramount ekoiztetxearentzat lan egin ostean, bakarkako ibilbideari ekin zion. Zuzendari independente gisa egindako lanek jaso zituzten kritikarik onenak. Era berean, film horietan agerian utzi zuen aktore gazteen arrakastarako bideari bultzada emateko gaitasuna. Horren erakusle dira *Christopher Strong* (1933) filmean parte hartu zuen Katharine Hepburn, *Craig's Wife* (1936) pelikulako Rosalind Russell edota *Dance, Girl, Dance* (1940) lanean agertu zen Lucille Ball.

1943. urtean zuzendari lana albo batera utzi zuen, baina ez zen zinematik guztiz aldentu. Emakumearen Arma-Gorputzarentzat entrenamendu filmak egin zituen eta Pepsi konpainiarentzat iragarkiak sortu zituen, baita antzezlanak ekoitzi ere.

Bi hamarkadatan zehar egindako lan nekazienak izan zuen saria. Hala, 1933. urtean *Ameriketako Zuzendarien Sindikatuan* onartu zuten. Beste behin ere marka bat hautsi zuen: ordura arte gizonezkoek bakarrik osatzen zuten elkarreko lehenengo emakumea izan zen.

Urte luzez Hollywooden ikasitako guztia ondorengoei transmititzeko denbora ere izan zuen. Kaliforniako Unibertsitatean (UCLA) irakasle aritu zen 60. eta 70.hamarkadetan. Gidoien idazkera eta zuzendaritza irakatsi zituen hil zen urtera arte, 1979ra arte, hain zuzen.

Zinemari eta gizarteari egindako ekarpen guztiak aitortu eta omentzeko helburuz Donostiako Zinemaldiak atzera begirakoa eskainiko dio Dorothy Arznerri aurten. Espainiako Filmmategiarekin elkarlanean antolaturiko zikloa izango da, eta Hollywoodeko urrezko aroan arrakasta izan zuen emakume zuzendari bakarraren bizitzari zein obrari erreparatuko dio.